

...eta

Kitto!

948 zkia.
2015-X-30

Antonio Cancelo

Giza Balioak enpresan eta bizitzan gidari

EUKi

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

ARTEKARITZA

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean





Opari-paketeak egiteko ikastaroa

**Eibarko dendarientzako
doan!**

Azaroaren 16an
14:30etik 16:00etara
...eta kitto!n

Izen-ematea: azaroaren 2tik 13ra
Tel: 943 20 09 18 elkartea@etakitto.eus



Babesleak



w w w . h a m a i k a . e u s

GURE BEGIZ
IKUSTEKO

DEBABARRENA
Sintonizatu
34. kanalean

Hamaika
telebista

ASTEAN ESANAK

"Herri kirolak baseritik sortu dira, baina gaur egun kaleko jendea ibiltzen da; hor galera bat egon da. Kaleko eta baserriko gazteak integratzea izan daiteke salbazioa; gastuak dituzten kirolak kinka larriarri daude. Jokoa galtzen duenak beti esaten du iruzur egin dela; mitifikatu egin da hori"

(ANDRES OSA "SAKONA",
HERRI KIROLEKOTAKO ADITUA ETA KAZETARIA)

"Zer alukeria mota da Getxokoa izan eta ingelesez abestea rock talde batean? Ingelesa modernoa da; euskara, ordea, txokokeria. Horrela pentsatzen dutenek kultur aniztasuna aldarrikatzen dute gainera. Ba ingelesezko kultura elebakarra ez da aniztasunaren adibiderik onena, Grial Santua bilakatu badugu ere"

(TXUMA MURUGARREN,
ABESLARIA)

"Gizarte zibileko edozein elkarte egun berezia antolatatu duela-eta, egundoko protagonismoa ematen zaie gonbidatu huts gisa ekitaldira azaldu diren gobernuko ordezkariak, antolatzaileak bigarren planoan utzi. Bestela ere, klase politikoak ez ote du, bada, zati potoloa jaten albistegietan? Zer hobe herri eragileak goratzea baino?"

(XABIER LASA,
KAZETARIA)

"Eustat-ek eta Estatistika Instituto Nazionalak hilzorian dagoen euskal enplegua korrika egiten ipintzeko gai dira. Eustat-ek 3.700 enplegu suntsitu egin direla kaleratu eta hurrengo egunean, INE-k 11.100 sortu direla dio. Langabeziarekin gauza bera: tarte berean Eustat-ek 5.400 langabetu gutxiago daudela dioenean, INE-k kopuru hori 24.700era igotzen du"

(JOSE LUIS GALENDE,
KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KORAPILLO.- Soka baten punta biak batzeko egiten den lotura. "Harek egindako korapillua ez dago eskatzerik". Nahaste-borraste, eragozpen.

"Gauzak konpondu guran korapillo galanta egin eban, alkatiaren albiak ekan bibotia ez zala hain haundixa bota ebanian".

KORAPIN.- Korapilo sinplea, buelta batekoa. "Zapatak korapiñakin lotuta eroiazan".

KORAPIZTA.- Korapilo mota bat, bereziki oinetakoak lotzeko erabiltzen dena.

Kiribizta, gibiztin, korapin. Gaztelarazko 'lazada'. "Lotioxuz oiñetakuak korapiztiakin, errez eskatu deixazen".

eskutitzak

BERBETAN-EKO TALDEAK OSATZEN

Berbetan mintzapraktika programaren barruan, barixaku arratsaldeetan 18.30etik aurrera jarduteko taldea osatzeko euskaldunen bat behar da. Norbait animatuz gero, 943200918 telefonora deitu dezake eta argibide gehiago emango dizkiote. Bestalde, gogoratu Berbetan programan parte hartu nahi dutenek urte osoan daukatela izena emateko aukera. Asteko egun guztietan, goizez zein arratsaldez jar-

duteko moduko taldeak martxan daude eta, premien arabera, berriak osatzen joateko aukera ere badago. Euskaldun zahar zein berrientzat izen-ematea doan da eta informazio gehiago nahi duenak...eta kitto! Euskara Elkartera deitu (943200918) edo bulegora (Urkizu, 11 solairuartera) joan daiteke, jakin nahi duen guztia gustora azalduko diote eta.

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen €-MAILak: erredakzio@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /
publizitatea@etakitto.eus **Elkartaren €-MAILak:** elkarte@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Pere Virgili
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



Gipuzkoa
BERRIA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA

Amañako geltoki eta pasialeku barrixak martxa betian

Bilbo-Donostia linean Amaña-Ardantza bittarteko zatixan trenbidia bikoizteko biharrak eta geltoki barrixaren eraikuntza amaituta, zapatu goizian inauguraziño ofiziala egin eben agintarixak, Iñigo Urkullu lehendakarixak, Ana Oregi sailburuak eta Miguel de los Toyos alkatiak. ETS-k eta Eusko Jaurlaritzak egindako biharrak hiru urte iraun dabe eta inbersiñua 16'5 millioi eurokua izan da. Hórreri esker, bestiak beste, oiñezkuak erabiltzeko 8.500 metro karratu lortu dira. Bestalde, Amañako

geltokixa martxa betian dabil zapatuaz geroztik eta ohiko tren guztiak geratzen dira. Geraileku horretarako ordutegixak www.euskotren.eus helbidian dagoz eskuragarri.

Inauguraziñuaren harira alkatiak esandakua arabera, udalak eta Eusko Trenbide Sareak siñatutako hitzarmena osorik betetzeko Estaziño-Azittain bittarteko zatixan be trenbidia tapatzia falta da eta "ahaztu barik, lehenbailen" biharrerri ekiteko eskatu detsa Eusko Jaurlaritzari. Bestalde, Eibarko Emakumien Mahaixak



Zapatu eguerdian inauguratu ziren Amañako lanok. MAIALEN BELAUSTEGI

eskatutakua betetze aldera, Amañan zabaldu barri dan pasialekuari Berdintasun arluari

lotutako izena ipintzeko biharrerri dabiltzala emon dabe aditzera.

Errigoraren udazkeneko kanpaiña

Aurreko astiaz geroztik abian da Errigoraren udazkeneko kanpaiña eta aurten be horrekin



bat egin dabe Eibarko Errigora taldekuak, Nafarroa hegoaldeko kalitatezko produktuekin osatutako otarra 50 eurotan eskinduta: "15 ekoizlek arreta eta maitasunez ondutako produktu sorta jasoko dabe kanpaiñian parte hartzia erabagitzen dabenak. Baiña ariketa honek norabide bikoitza dauka. Izan be, keiñu berian, hartu ez eze emon be egingo dabelako. Otarra erosten dabenak batetik bertako ekoizpenari bultzadia emongo detsa eta, bestetik, otarrak balixo dabenaren % 25 Nafarroa hegoaldeko euskalgingtzara bideratuko danez, horretan be lagunduko dau".

Kanpaiña azaruaren 8xan amaittuko da eta Eibarren, hainbat ikastetxe eta euskaltegixetaz gain, Guridi, Depor eta Beleko tabernetan eskatu leike otarra. Interneten www.errigora.eus webgunian be jasotzen dittue eskaeriak. Eibarko arduradunekin kontaktuan ipintzeko eibar@errigora.eus helbidera idatzi leike.

Neska gaztiendako autodefentsa

Neska gaztiendako, 12-18 urte bittartekuendako "Autodefentsa Feminista" ikastarua antolatu dabe udaletik. Ikastarua azaruak 20xan izango da, Indianokua gaztelekuan 16:45etik 20:45era eta izena emoteko epia azaruaren 6xan zabaldu eta 15ian itxiko dabe (gaztelekuan). Antolatzailliak azaldu dabenez, ikastaruan eraso sexistak zer diran, zelan identifikatu, beldurreri aurre nola egin... eta beste hainbat kontu jorratuko dittue eta, horrekin batera, autoestima lantzeko tartia be hartuko dabe.



Saharako kanpamenduak egoera larrixan

Saharako Illargi Gorrixak larrialdi egoeria deittu dau, aurreko asteko eurixak Tindufen (Aljeria), errefuxiatuen kanpamenduetan eragindako kaltiak dirala eta. Sahararen aldeko alkatiak baxotxak ahal daben moduan laguntzera animau nahi dabe jendia. Eibar-Sahara Elkartekuak dirua batzen dabiz Euskadiko Kutzako 3035 0023 99 0230081679 kontuan. Horrekin batera, Txonta kaleko 42xan daguan lokalian arropak eta mantak batzen dihardue (martitzen, eguazten eta eguenetan, 17.00etatik 19.00etara).



Bestalde, Eibar-Sahara alkartekuak Untzagan egongo dira gaur, nahi dabenari informaziñua emoteko prest. Eta bixar egun osuan eta domeka goizian zozketa solidarixua egingo dabe, Eibar foball taldeko jokalarixak emondako kamiseta, baloi, botak eta bestelakuekin (zozketia domekan 14:30xak inguruan egingo da). Horrekin batera, zapatu arratsaldian Eibar taldeko hainbat jokalarik Sahararen aldeko argazkixa etarako dabe eta nahi dabenak astian zihar lkatzen erosteko aukeria eukiko dau, 5 eurotan.

Bizilagunak ekimenerako

Azaruaren 22xan egingo da Bizilagunak programaren laugarren ediziñua, SOS Arrazakeriaren eskutik. Aurreko urtietan egindakua bidetik, aurten be bertako nahiz kanpotik etorritako famelixak mahai baten inguruan jarriko dittue, bazkaltzen daben bittartian alkar ezagutzeko tartia eskinduta. Asmua herritarren arteko topaketa atsegiña sortzia dala diñue arduradunak. Bizilagunak ekimenarekin bat egin nahi dabenak 943321811 telefonora deittu edo sosracismobizilagunak@gmail.com helbidera idatzi biharko dau.

Ordutegi berezixa kanposantuan

Domekia Domusantu eguna izango da eta, holako egunetan normalian baiño jende gehixago ibiltzen denez, kanposantua ordutegi berezixan zabalduko dabela emon dabe aditzera udal Zerbitzu saillekuak: gaurtik hasitta eta astelehenera arte egun osuan egongo dira zabalik Urkiko hillerriko atiak, goizeko 08.00etatik illuntzeko 20.00-etara. Horrekin batera, Arimen Egunion (azaruaren 2xan, astelehenian) betiko moduan mezia ospatuko dabe kanposantuko kapillan, 11.00etan.



Urkiko hillerriko atiak egun osuan egongo dira zabalik gaurtik hasi eta astelehenera arte. LEIRE ITURBE

Teknologixa eta Zientzia Astia Museuan

Topaketa teknologikua antolatu dabe Armagintzaren Museuan, Zientzia eta Teknologiarene Astiaren harira. Ikasmaker alkartiak eta Omnis Club-ak gidatuko daben ekitaldixa "teknologixaren mundura gerturatu nahi daben jende guztiarendako" zabalik egongo da, azaruaren 7xan (zapatua), 11.00etatik 13.00etara, Armagintzaren Museuan eta saiuan "etorkizuneko sorkuntza moduetan inportantiak izango diran alderdi teknologikuak" landuko dittue, tartian 3D inprimagailuak edota Arduino softwarea.



Sarrerria duan izango da, baiña bakarrik 20 lagunendako tokixa egongo denez, interesa dakanak izena lehenbailehen emotia komeni da (museoa@eibar.eus helbidera idatzita).

autuan

LAN ESKINTZAK

Udalak hiru lanpostu betetzeko eskintzak egin ditu: itzultzaile lanposturako izena emoteko azken eguna gaur da (interesa dakanak Lanbiden emon biharko dau, 162015007569 eskintza-zenbakixan). Saxofoi irakasle posturako izena emoteko epia, barriz, azaruaren 2ra arte egongo da zabalik (Lanbiden, 162015009220 eskintza-zenbakixan). Eta Andretxeako dinamizatzaile posturako izen-emotia azaruaren 6ra arte egongo da zabalik (Lanbiden, 162015009265 eskintza-zenbakixan). Informaziño gehixagorako www.eibar.eus webgunian begiratu.

1945-IAN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotako "uzta bikaiña" osatzen dabenak azaruaren 25ian ospatuko dittue 70 urtiak, alkarrekin bazkalduta. Juan nahi dabenak 70 euro sartu biharko dittu Kutxabanken, 2095 50 35 00 9115407812 kontu zenbakixan.

"Presidentia izan aurreko tramitia" bete eban Sanchezek

Holan kalifikau eban Idoia Mendia PSE-EE-ko idazkari nagusixak martitzenian Pedro Sanchez Espaiñiako gobernurako sozialisten hautagaixak gurera egindako bisitia. Estatuko presidentia izan aurretik "Eibarren mitiña emon bihar dala" gogoratu eban egun horretan urtiak betetzen zittuan Euskadiko sozialisten idazkarixak, Felipe Gonzalezek eta Patxi Lopezek emondako mitiñak goguan. Abenduko hauteskundie-

tarako sozialisten burua danak goiz osua emon eban Euskal Herrixan eta arratsaldian Teknikerreko instalaziñuetara bisitan juan zan, Coliseoko ekitaldixari ekin baiño lehen. Lepo beteta egon zan antzokixan, Sanchezek herriko sozialisten berotasuna jaso eban eta, bestiak beste De los Toyos alkatiak, ziñegotzi sozialistak eta Iñaki Arriola Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusixak lagundu zetsen.




AZKARATE TELLERIA'tar FERNANDO

5. urteurrena: 2010-XI-7

"Beti izango zara gure bihotzetan"

ETXEKOAK



asteko %75 datua


baifio zeozer gehixago osatzen dabe 9 hillebetian kontenedore marroia 20 aldiz baifio gehixagotan erabilli daben famelixak; izen-emonda daguazten 10.828-etik 8.030-k gainditu dabe gitxieneko mailla eta, beraz, zabor-tasan deskontua jasotzeko moduan dagoz.

Odol-emotailleri omenaldixa

Gipuzkoako Odol Emaillien alkartiak, urteroko moduan, hainbat odol-emotailleri omenaldixa egin zetsen zapa-tuan. Unzaga Plaza hotelian egindako ekitaldixan Antzuola, Bergara, Elgeta, Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Oñati eta Sorluzeko odol-emotailleriak alkartu ziran eta omendutakuen artian 16 eibartar egon ziran.



75 aldiz edo gehixaguetan odola emotiagaittik jasotako plakekin. MAIALEN BELAUSTEGI



Gurasoak martxan

Jarduera bi azaruan, Gurasuak Martxan-en eskutik

Gizartekintzak eta gurasuen alkartiak "Gurasoak Martxan" programaren barruan pare bat jarduera antolatu dittue azarorako Portalean: "Eskumen emozionalak" (azaruak 9 eta 17, 18:30etik 20:30era) eta "Teknologia berriak" (azaruak 24, 18:30etik 20:30era). Lehelenguan landuko dittuen edukixak honetxek dira: adimen emozionala, seme-alabak ulertzia, jokua-ren garrantzixa, beldurak eta kezkek haurtzaruan, hasarria nola kudeatu eta afektibidadia hezitzen. Eta bigarrenian, barriz, beste h6nek:

sare sozialen erabilleria, seguridadia sarean eta whatsapp, ciberbullying-a eta tekno adikiziñuak edo mendekotasunak. Parte hartzeko izena emon biharko da derrigorrez, Gizartekintzan (gizartekintza@eibar.eus) edo, bestela, ikastetxietako guraso alkartien bittartez. Taldiak Baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioko Garbiñe Arrizabalagak bideratuko dittu.



Iker Laka, Eibarko EGI-ko idazkari

Martitzenian egindako ezohiko biltzarrian Eibarko EGI-k bere kontseillua barritu eta Iker Laka idazkari hautatu eban. Lakak aurreko urtietan egindako biharrarekin jarraitzeko eta Eibarko EAJ-ko UBB barrixarekin batera, alkarlanian aritzeko konpromisua azaldu dau. Horrekin batera, gaztiak politikan parte hartze-ra animau nahi dittu, "Eibarko etorkizunarendako ezinbestekua dalako". Laka, Ivan Iriondo eibartarrarekin batera, Gipuzkoako EGI-ko kidia da uztaillaz geroztik.

Iris Chains-eko bihargiñak hitzarmenaren alde



LAB eta ELA sindikatuak sifiatzen daben idatzixaren arabera, Iris Chains SL-ko bihargiñak lan hitzarmenaren aldeko lanuztiak egitten hasi dira: "Gipuzkoako Siderometalurgiako hitzarmena (2010-2011) aplikatzeko Lan Harremanetarako Kontseiluan egindako hainbat ahalegin eta gero, Iris Chains SL enpresako bihargiñak lanuzte partzialak egitteko deiza egin dabe". Urrixaren 8xan bihargiñak egindako asanbladan enpresaren azken proposamena ez onartzia erabagi eta gero ekin detse lanuztieri.

Mugarrixak konponduko dittue

Klub Deportiko kidiak Eibarko mugarrixen inguruan egindako biharrarian jasotakua kontuan hartu dittu udalak eta premiñia dakenak konponduko dittuala emon dabe aditzera. Biharrak egitteko eskintza udalari aurkeztu zetsan enpresa bakarrak, Belako Lanak SL izenekuak konponduko dittu hondatuta daguazten mugarrixak eta lanak egittiagaittik 3.781 euro pagauko detsez.



Probatu zure zentzumena

Probatu zure audifono berriak

30 egunetan



Egokitzapen bermatua

Kontsultatu baldintzak denda honetan.

Entzumen-test integralak

Audifono digitalak

Neurrira egindako tapoiak

Konektibitate-soluzioak

Mantentze-tekniko integrala

Neurrira egindako finantziazioa



audiocentro
Igmar

Julian Etxeberría, 2

20600 Eibar

Tel. 943 20 26 99

Audioprotesis goi mailako
teknikaria: Antón Martinena

ANTONIO CANCELO (*Gure Balioak 2015 Saria*):

“Zintzo jokatuta errentabilidadia hobetu leikiala siñisten dot”

Debegesaren ekimenez seigarren urtez emongo dan Gure Balioak Sarixa aurten Antonio Cancelo enpresarixuak jasoko dau, epai-mahikidiak hautagaitza guztiak aztertu eta gero holan erabagitta. Debabarrenian giza balioen arluan bereziki eragin dabeneri egindako ahalegina aitortzeko sarixa, Juan Luis Baroja Collet artistaren brontzeko eskultura, azaruak 12xan Coliseo antzokixan egingo dan ekitaldixan jasoko dau Cancelok, iaz Gure Balioak Sarixa jaso eban Sabin Osororen eskutik eta Garbiñe Biurrun epailiak balioen inguruko hitzaldixa emongo dabela aurreratu dabe.

- Zuria moduko ibilbide luzia egin eta gero, zelako esanahixa dauka zuretako holako errekonozimenduak?

Neretako oso berezixa da, hain zuzen be Eibarren emotiagaittik. Urte asko emon nittuan bertan bizitzen eta, aillegau nintzan momentutik, beti maitatua eta lagunduta sentidu izan naiz. Lehen aukeriak hor eskindu jatazen eta, hórrek euki ezian, geruago izandako ibilbidia eziñezkua litzake. Kariño haundixakin gogoratzen dittut hárek urtiak, nere bizitzan gidari euki dittudan baloriak, egindakuari zentzua emon detsen baloriak orduantxe finkatu ziran eta. Intensidade haundiko bizipenak izan ziran, konpromisoz eta adiskidetasun sendoz betetakuak.

- Nola gogoratzen dittuzu gerora Eroski izatera aillegauko zanaren sorreria? Zuzendaritza kargua eta horretarako prestatzeko ikasketak, bixak batera egitten ibilli zifian, ezta?

Ez nintzan historixa horren sorrerako protagonista izan, Juan XXIII Kooperatibaren zuzendaritza nere gain hartzia eskatu zezenerako legez osatuta eguan. Beraz, neri martxan ipintzia tokau jatan, hau da, aukeria zelakua izango zan diseñatzia, erosketak egittia, lantaldiak eratzia eta abar. Kooperatiba bat kudeatzeko bihar diran ezagutzak ez nittuanez, jakin biharrekuak ikasteko estudixatzen hasi bihar izan neban, eta horretan beste lagun eibartar bat, Jose Antonio Mendicute erabakigarria izan zan. Hasieratik oso garbi nekan, jokaeria ezohikua izanda be, herri bakotxian kooperatiba bana ipintzeko ideia gainbeheran eguan eredu bateri erantzuten zetsala eta, beraz, merkatueri hobeto moldatzeko formula barrixak planteatzeko premiñia eguala, hortik etorri ziran lehen kooperatiben alkartzia eta Eroskiren jaixotza.

- Zergatik erabagi zenduan kooperatibaren ereduari eta ez beste bateri jarraitzia?

Berez gorago azaldu dotenak ekarri zestan, baina Teologixia, Filosofixia eta Soziologixia ikasteko lagunak alkartzen giñan taldian, TE-FISO izenekuan, are konpromiso haundixagua eukiko eban eredu bat nahi genduan eta, kostau jakun buruan sartzia kooperatibena zala, askorengaittik, jomugatzat euki geinkian eredu sozialena.

- Orduan sasoiari ifioiz pentsau zenduan egunen batian Eroski estatuko kooperatiba haundixena izatera aillegauko zanik?

Proiektu bateri ekiten jakonian ez da hola kontuetan pentsatzen. Halanda be, griñarekin biharrian jarduteko gogo pixka bat eukitta, eta horretarako gogua bagenkan, eta gure ezagutzak etenbarik hobetzen juateko biharrezkua zan ahalegiña egitteko prest egon ezkeru, garatzeko aukerak asko zirala oso argi euki neban beti.

- Handik urte batzuetara kooperatibismuaren beste adibide inportantienetakua dan Mondragon Taldeko zuzendaritza be izan zifian eta, gaiñera, epe horretan bihargin kopuruak gora egin eban nabarmen. Zeintzuk uste dozu dirala horrelako arrakasta lortzeko gakoak?

Proiektu baten parte diran lagun gehixenak potentzial haundixa dakela, nahi izanez gero euren buruak hobetzeko aukeria dakela eta helburu garrantzitsuak lortzeko gauza dirala, euren proiektziño personalari eta euren inguruari modu erabakigarrian eraginda hórrek siñistaratzia lortzen danian, orduantxe aillegatzen da arrakastia. Ausartu egin bihar da gero, bildurak gainditu, anbizio handiko helburuak planteatu, porrot egittiar bildurrik ez izan eta, gertatuz gero, hankasartziak umiltasunez eta ikasteko bide moduan hartzen jakin.



Antonio Cancelo Puebla de Sanabria, Zamorako herri txiki batian, jaixo zan 1936xan. ATS ikasketak egin eta horretan jardun eban denpora batian. 60. hamarkadaren hasieran gurasuekin Eibarrera etorri zan. Kezka sozial, erlijioso eta kulturalak zittuan gazte talde batekin bat egin, asmo sozialak zittuen hainbat enpresa-ekimenetan interesa agertu eta, holan, Juan XXIII konsumo kooperatibaren sorreran parte hartu eban. Kooperatiba hori izan zan 1969xan sortu zan Eroskiren abiapuntua. 25 urtian zuzendu eban Eroski, 1990. urtera arte. Urte berian Eroski Taldeko presidente izendatu eban. 1992xan, Mondragon Taldeko Banaketa eta Elikadura Dibisiñoako presidenteorde izan zan eta 1995ian MCC Taldeko Kontseillu Orokorreko presidente. Biharrian pasau zittuan azken urtietan Mondragon Taldeko presidente izan zan eta karguan emon zittuan 6 urtietan loraldixa ezagutu eban taldiak, 28.000 lanpostu izatetik 60.000 izatera pasautu. Gaur egunian enpresa-aholkularixa da, hitzaldixak eskintzen dittu eta hainbat argitalpenendako artikuluak be idazten dittu.



“Kooperatibak defenditzen dituden baloriak nik bizitzari buruz dakaten ikuspegixarekin bat datoz”

- Une latzak be ezagutu dituduzu. Zelan eragin detse azken krisiak kooperatiberi?

Bizitzan zihar momentu diferentziak izaten dira eta, parte hartzen dogun hori inguruan gertatzen diran aldaketeri moldatzen eta egokitzeko prest egon bihar dugu. Erabagixak atzeratzen badittugu, oso gogorak diralako, proiektuak arriskuan ipiñi geinkez. Krisixa oso gogorra izan da eta bere eragiñak ez dau enpresa formulen artian bereizketarik egiten, kooperatiberi merkaturak daken posizionamenduaren arabera eragiñez. Edozelan be, kooperatibak orohar ondo erantzun dabela pentsatzen dot, nahiz eta proiektu oso garrantzitsu baten porrotak bestiak euki daben arrakastia tapauta laga.

- Enpresa munduan hasi zifala urte asko pasau dira. Gaur egunian atzera be hastia tokau ezker, kooperatiben aldeko apustua egingo zenduan barriro? Gaur egunian mundu maillako merkatua zelakua dan ikusitta, oindiok be eredu bideragarria eta konpetitibua dala pentsatzen dozu?

Horretan ez dakat zalantzarik. Ni kooperatibetan sartziak neurri haundi batian egoeriak berak baldintzatu eban arren, elkarte horrek defenditzen dituden baloriak, eta ez bakarrik ikuspegi teorikotik, nik neuk bizi-

tzari buruz dakaten ikuspegixarekin bat datoz. Baiña argi dago beste edozein enpresak lez, kooperatibak be hainbat kontu moldatu biharko leukiazela, behintzat gobernantzaren esparruaren barruan, zuzendaritza batzordian sartzen diraneri aurretik eskaeriak planteauta. Baleike, famelixa-enpresak egindakuaren bidari jarraituta, kanpoko aholkulariak gehitzeko moduko erabagixak aginte organuen indartzia ekartzia. Ezagutza teknikuak eta kooperatiben munduan oiñarrizkua dan kudeaketa demokratikua, gauza bixak uztartzeko gauza diran zuzendarixak topatzia be da bape erreza. Eredua bideragarria izatiaz gain, oso positibuak diran bereizgarrixak be badakaz. Eta hórretako ezaugarri batzuk, gaiñera, kapital alkartiak imitatzen ahalegintzen dira.

- Epai-mahaixak bereziki azpimarratutakuen artian, "beste enpresa eredu baten adieragarria, etekiñak, merkatua, eraginkortasuna eta antolamendu egokixa alkartasunarekin eta ardurak partekatziarekin lehian ez daguzela eta lankidetz, zintzotasuna, apaltasuna, ahalegiña eta nekaezintasuna errentagarritasun ekonomikuarekin eta, batez be, sozialarekin bateragarrixak dirala" aitortu detsuz. Gaur egun ezagutzen dogun

enpresa munduan holako baloriendako tokirik geratzen da?

Epai-mahaikidiak oso atsegiñak izan dira gehixago edo gitxiago asmatuta praktikan ipintzen ahalegindu naizen baloriok nigan topatzian. Bene-benetan siñisten dot aittatzen diran balorik errentabilidade ekonomikuarekin bateragarrixak dirala. Are gehixago, jokabidietan zintzua izanda errentabilidadia hobetu leikiala pentsatzen dot. Baleike bizitzen dihardugun hau alderdi horrendako sasoirik egokixena ez izatia, baiña ez dogu ahaztu bihar iragana ez zala hobia izan. Izan be, jokabide lizun eta zikiñak gertatu gertatu arren, orduan ez ziran ezagutzera emoten.

- Gaur egunian aholkulari eta hizlari zabiz. Enpresarixoa izan nahi dabenendako aholkurik badaukazu?

Beste ezer baiño lehen, enpresarixuaren zeregiña alkarte baten ongizaterako erabagiarria dala esan biharra dago. Hortaz, enpresa proiektu bat hastia bizitza bateri zentzua emon leikixon abentura politta da. Baiña hasi bihar daben proiektua bere bizitzalehentasetan kokatzeko edo sakrifizioarako prest ez daguana ez litzake ahalegindu bihar. Izan be, fruitua, iñoiz fruiturik bada, erein eta oso denpora luzera jasotzen dalako.

Debarreneneko Mekanizazio Enpresa batek

MEKANIZATZAILEA behar du

ESPERIENTZIA izan behar du
Fagor eta FANUC
kontroletarako programazioan

CNC Mekanizatu Zentrorako

KONTAKTURAKO: **943 74 43 58**

Kultur aniztasunak azaroa beteko du

Azaroan kultur aniztasunak toki berezia beteko du gure herriko agendan. Izan ere, urteroko martxan "Munduko Paisaiak - Liburutegiak Topaleku" ekimenaren harira hainbat jarduera berezi antolatu dituzte, beti ere munduan dagoen kultura aniztasun zabala ezagutzera emateko asmoari jarraituta. Juan San Martin liburutegiaren hilabete osoan gaiari eskainitako interesgunea egongo da ipinita eta, horrekin batera,

gida bibliografikoa ere prestatu dute. Horrez gain, egitaraua hitzaldi eta bestelako saioekin osatu dute: datorren asteko eguaztenean (azaroaren 4an), Skolastika elkarteko Josune Muñozek "Literatura del mestizaje femenino europeo" izenburuko hitzaldia emango du Portalean, 18:00etatik aurrera. Azaroaren 10ean, berriz, "El mundo en bicicleta" pelikula emango dute (19:00etan, Portalean) eta hilabete horretako



"Munduko Paisaiak - Liburutegiak Topaleku"

Zapatuko Ipuina ere kultur aniztasunari eskainitakoa izango da ("Mundu berri.nol?", Ana Rodriguezen eskutik).

Horrekin batera eta udaleko Inmigrazio sailarekin elkarlanean, azaroaren 14rako Jaialdi Kulturantza antolatu dute. Untzagak janari ezberdinak, inmigrazioaren mapa, perkusio tailerra (Maroko), Pasacalle de la Moredana (Bolivia) eta Código Habana (Kuba) hartuko ditu, 14:00etatik aurrera. Bestalde, azaroaren 18an, 18:00etatik aurrera zurrumu-

rrien kontrako mahai-ingurua egingo da Estazio kaleko Al Toyor elkartean. Hurrengo egunean SOS Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagak "Asilo, refugio y crisis en Europa" izenburuko hitzaldia emango du eta 20an, berriz, Xabier Aierdi soziologoak "Inmigratioari buruzko pertzepzioa Euskal Herrian" gaiari helduko dio. Eta egitaraua eta hilabetea agurtzeko, azaroaren 30ean Eibarko etorkinekin batera egindako bideoa proiektatuko dute Ipurua zelaian.

Gabonetako OTARRA

2.000 €ko balioa duen Otarra

Prezioa: 1€

Zuzeneko 2015eko abuztuaren 15ean egongo da

Zbk: Euskara Elkartea

Publizitate 17 agintzeri agertzen da bakiaren antzeko irazpena bakiaren...

eta **kitto!**

El Corte Inglés

1€

GAUR (19.00-21.00)

BIHAR (13.00-14.00)

ETZI (11.00-12.00)

KALEAN EROSTEKO AUKERA

SALMENTA LEKUA

- Korrees bulegoa
- Isasi okindegia
- Arriaundi okindegia
- Izadi loradenda
- Mugika harategia
- Kultu taberna
- Etxeto prentsa
- Arriola prentsa
- Maria Ospital (Calbeton)

- Otegui harategia
- Zubi Gain taberna
- Bolintxo okindegia
- AEK
- Udal Euskaltegia
- San Andres gozotegia
- Zabaleta okindegia
- El Tio Palancas

46"ko TELEBISTA eta gabonetako produktuak dituen otarra

2.000 euroko Gabonetako OTARRA

Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

Denda eta tabernetako deskontu kanpaina berria erosketa-bonuekin

Eibar Merkatal Gune Irekiak kanpaina berria zabaldu du azaro osorako. Iaz abenduan eta aurten maiatzean egindako kanpainen bide beretik joango da hirugarren hau ere eta bonuak erosketak %20rako deskontuarekin egiteko aukera eskainiko du. Aipatutako kanpaina bietan salgai ipinitako deskontu-bonu guztiak agortu ziren. Oraingo honetan ere funtzionamendu berbera jarri da abian eta, 40 euro ordainduta, Eibar Merkatal Gune Irekiaren lokaletan (Untzaga, 7an - Artola jatetxearen ondoan-) erosketarako bonua jaso ahal izango du jendeak. Bonu horrekin, baina, ondoren 50 euroko balioa izango duten erosketak egin ahal izango dira.

Bonuak astelehenetik, azaroaren 2tik, aurrera jaso ahal izango dira, guztiak agortu arte. Bonu horrekin azaroaren 2tik 28ra arteko erosketak egin ahal izango

dira, jakina, Eibar Merkatal Gune Irekiaren parte diren denda eta tabernetan. Guztira, 200 establezimenduk eskaintzen dute aukera hori. 150 hainbat sektore eta adarretako denda eta zerbitzu, eta beste 50 bat ostalaritza arloko taberna eta jatetxe. Bonuetan denda guzti horien izenak agertzen dira eta, gainera,, parte hartzen duten establezimendu guztiek kanpainaren logotipoa eukiko dute bistan.

Bonua diruz edo txartelarekin erosi daiteke eta, horrez gain, bezeroak hala nahi badu, pilatu daitezke eta, baita, bonu bakoitza bitan banatu, 25 euroko edo gehiagoko erosketak bi dendetan egiteko aukera izateko. Modu horretan erraztu nahi dute normalean 50 eurora iristen ez diren gastuen kasuekin gertatzen dena (ostalaritzan, esaterako).

Hori bai, bonuak erosteko NAN-a es-

katuko da, eroslea eibartarra dela ziurtatzeko, eta pertsona bakoitzak bonu bakarra eskuratu ahal izango du. Kanpainaren helburua aurreko bietako berbera da: bezeroari eskaintzen zaion %20ko deskontu horrekin, guztiak -dendak zein bezeroak- irabazten irtetzea, bide batez merkataritza aktibitatea indartuz eta bezeroaren fideltasuna sustatuz. Eibarko Udalarekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikoa eta Konpetibitate Sailak ere babes-tu du kanpaina.



EROSKETA BONUA

50€ko BALIOA DU
EROS EZAZU 40€ren TRUKE!

BALDINTZAK:

- 2015/11/02tik 2015/11/28ra arte baliagarriak.
- Bonuak metatu eta 25€ edo gehiagoko bi erosketatan banatu daitezke.
- Eibarren bizi direnentzat bakarrik.
- Bonu bat NAN edo erroldatze bakoitzeko gehienez.
- Txartelarekin ordaindu daiteke.

* Sendagaiak ez dira sartzen. Parafarmaziako produktuentzat baliagarri.

DENDAK/ZERBITZUAK

Afede
Aixa
Albizu Harategia
Aldazabal
Antxon
Aramburu
Arregi-Dominguez
Arregi-Dom. Ego-G
Artamendi
Askasibar Intersport
Astigarraga
Atelier
Audiocentro Igmar
Autozerb. Azpiri
Autozerb. Villalba
Baglieto
Bambi
Beep Eibar
Benicoba
Burbujas y Más
Capi
Cedry
Centro Opt. Beittu
Chic Estilistas
Chiquitín
Comercial Zabala
Confecciones Roca
Confecciones Vieco
Corral
Cortinas y Pers. Eib
Dandara
De Capricho
Desván
Dibutec
Dietetika Muñoz
Diet. Muñoz-Urkizu
Dirdai
Ditare
Doroti
Edurne Ile-apaind.
Eguren
Eibarko Bizikleta
Eibarsat
El Corte Inglés
El Corte Inglés T.E.
Elektr. Gaur
Electro-Aguirre
Errebal Kiroiak
Gasolind. Azitain

Gasolind. Eibar
Gasolind. Kantoi
Estankoa Gisasola
Estankoa Toribio E.
Estelisa Ibone
Estudioa Arrillaga
Etixedreams
Exclusivas Javi
Botika Ana Mand.
Botika Castaño*
Botika Elorza*
Botika Azkue*
Botika Lekumb*
Farmaluz
Federópticos Igmar
Galarreta Activitys
General Óptica
Goilara (Urkizu)
Goilara (Calbetón)
Golen
Goiko-Luz
Goritz
Gozoki
Gratzina
Guby Mutilak-Birji
Guby Mutilak Zuloa.
Guby Neskak
Guillermo (Errebal)
Guillermo (Urkizu)
Homme
Iifar Sukaldeak
Ikusimakusi
Info-Coste.Com
Rezola Harategia
Yraolagoitia
Irritsa
Itxesi
Izadi
Izane
Jauregui
Larrañ. Harategia
Jerónimo
Joyería Alberto
Juli Janari-Denda
Kinkila
Kiñu 2000
Kopiña
La Guinda
Lacuesta

Lahidalga
Lakett
Leder
Lide
Mabe
Marrodan
Marsi
Meka-Hotel
Mokka Interioris.
Mugika Harategia
Multiópticas Eibar
Natural
N.Optics Plazaola
Neure
No Comment
Nona
Nuvan
Oberena
Oihal
Oskarbi Oinetakoak
Otegui
Peluquería Mn
Pictel
Pinturas Arregui
Pissa
Pitxiak
Refan
Salaberria
San Andrés
Sastrería Azpiri
Selene
Stylo Peluquería
Sua
Tapicería Alkor
Tribeka
Trinmer
Ttiki
Twins
Txukuna
Umea
U. C. of Beneton
Urdanibia
Valenciaga
Eroski Bidaiak
Vintage Estilistak
Women'ssecret
Xare
X-Treme
Zentral Optika
Zurkulu

OSTALARITZA

Afrikan Haritza
Akara
Akatz
Albert
Anardi
Arkupe Gastropub
Astelena Gastroteka
Atalaya
Aterpe
Baisi
Bakoleku-Vinoteca (Ego-Gain)
Bakoleku-Vinoteca (Urkizu)
Bar Pizzeria Bossa
Bar York
Beleko Taberna
Birjiñape
Buenos Aires
Club Deportivo Eibar
Café Teatro Tas-Tas
Casino Artista Eibarrés
Cervecería O'hara
Chalcha Jatetxea
Degustación Boulevard
Ego Gain
El Corte Inglés (Ego-Gain)
Ez-Dok
Forchetta
Foxyter
Garden
Gurbil
Gure Leku
Guridi Rugby
Irimo
Kaiton
Katu Kale
Kontent
Koskor
Kultu
Lanus
Laurel & Hardy
Maixa
Makala
Mesón Aguiñaspi
Oishi
O'jays Irish Tavern
Ongietorri
Paulaner
Punto y Aparte
Restaurante Portalea
Slow
Sokoa
Suberoa
Sufondo
Telepizza
Trinkete
Tunelpe
Txoko
Valle
Vivaldi
Xok
Zubigain

Internetek ate asko zabaldu dizkio Jone Bengoari. Bere lanak sarean (jonebengoa.bigcartel.com) eskuragarri jarri dituenetik, munduko hainbat txokotatik agertu dute bere margolanen inguruko interesa. 19 urteko gazteak Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza ikasteaz gain, margotzeko eta beste hainbat jardunetan aritzeko denbora ateratzen du.

- Betiko galdera: pintatzen ikasi egiten dugu ala dohainarekin jaiotzen gara ?

Dohainarekin baino gehiago, afizioarekin jaiotzen gara. Eta pintatzeko afizioa duenari ez zaio inporta gustatzen zaiona egiten orduak eta orduak pasatzea. Beraz, esango nuke, zenbat eta denbora gehiago pasatu, orduan eta hobetu egiten dugula, eta ikasi azken finean.

- Zein izan da zure bilakaera?

Txikitatik pintatzen dut. Pintura eskolan hasi nintzen baina denbora faltagatik etxean pintatzera mugatu naiz. Hala ere, nire lanak inoiz baino eskuragarriago daude interneti esker; Hain dago globalizatua, mundu guztiak ikus ditzakeela zure lanak, literalki. Baliteke munduaren beste puntan dagoenak zure ondoan dagoenak baino gehiago balortzea egiten duzuna.

- Nola daki artista batek jendea bere lanengatik ordaintzeko prest dagoela?

Jendea galdezka hasten zaizun momentuan. Hala ere, nire lehenengo lana blogger bati esker saldu nuen. Nire pinturen inguruko post bat argitaratu zuen eta jende askorengana iritsi zen. Nire facebook orrialdearen bisitari kopurua igo egin zen eta bide hau hartuta hiru lan saldu ditut oraingoz. Gainontzekoak inguruko jendearentzat izan dira; lagun, ezagun, familia ...

- Noiz pintatzen duzu?

Lanpetuta nagoenean. Deskonektatzeko eta estresetik ihes egiteko. Ez dago momentu espezifikorik egunean zehar.

- Begiak eta begiradak ageri dira zure lan gehienetan ...

Begiak pertsonaren parte esanguratsuen dira. Ahoarekin irribarre egitea ez da nahikoa begiak triste badaude ... Begiarekin pertsonaren sentimenduak agerian geratzen dira. Oso interesgarriak iruditzen zaizkit eta gainera koloreekin jolasteko aukera handia ematen dute, gorputzeko beste zatiek ematen ez duten bezala.

- Paperean pintatzeaz gain, bestelako lanak ere egin izan dituzu?

Bai, muralak egin izan ditut paretetan, EzDok eta Areto tabernetan eta baita gaztetxean ere. Mugikorren karkasak ere pintatu izan nituen denboraldi batean. Lagun batek egin zidan enkargua eta hobby berria aurkitu nuen.

- Lehiaketetara aurkezteko zara?

Bai, ahal dudanean bai, gustatzen zait. Normalean ez dut denborarik edukitzen baina saiatzen naiz parte hartzen. Donostiako pintura lehiaketan bi aldiz lortu dut gazteen lehenengo saria, Eibarko aire libreko lehiaketan ere lortu izan dut lehenengo postua eta kartel lehiaketetan ere irabazi izan dut



Jone Bengoa
(ARTISTA)

“Ahoarekin irribarre egitea ez da nahikoa begiak triste badaude”

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737

Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!

Astelehenetik
ostegunera
PIINTXO-POTEA!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTINDO

PUBLI RESA

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97
publi.resa@euskalnet.net

EZTEIEN

34. zenbakia
2015eko **UDAZKEN**eko gehigarria



Argazkia: Josu Torrealday

GEHIGARRIA



ROCA CALBETON, 16
-EIBAR-

TEL. 943 20 80 06

**Ezkontza egunerako guztia...
...ZURE ESKU!**



F. PASCUAL Arane, 6
Telf. 943 20 61 64
Faxa. 943 20 85 43
20600 EIBAR



VIRGINIA PASCUAL
Zubiaurre, 36 (behea)
Tel. eta Faxa: 943 17 68 28
www.cocinaspascual.com
48260 ERMUA

SUKALDE ALTZARIAK
BARNERAKO

Blanca
LORA-DENDA

943 20 88 47
943 70 88 00
645 67 85 76



El Corte Ingles-ean

J. Salaberria
Bitxitegia



RELOJERIA
SALABERRIA

Errebal, 22
943 20 20 79



Josutorrealday
argazkileria/fotografia
WWW.JOSUTORREALDAY.COM
contacto@josutorrealday.com | 679950858



Argazkia: Josu Torrealday

Ezkontza prestatzea ez da lan erreza izaten, denbora asko inbertitu behar izaten da dena ondo antolatzeko, eta buruhauste bat baino gehiagori aurre egin behar izaten zaio. Hala ere, gauzak ilusioarekin eta bihotzarekin egiten badira, benetan esperientzia ahaztezina izan daiteke. Emaztegiarendako soinekoa, senargaiarendako jantzia, jatetxea, gonbidapenak, autobusa, pelukeria eta makillajea, lorak, tartak, oparitxoak, argazkiak... Gauza asko hartu behar ditu kontuan egun horretako protagonista izango den bikoteak. Baina ezkongaiak ez dira bakarrik egoten, familia eta lagunez inguratzen dira, eta horientzako ere egun berezia izaten da. Nork ez du buruhauste bat baino gehiago izan egun horretan behar den bezala jantzita, orraztuta edo makillatuta egoteko?

Emaztegi klasikoa

Azken aldian mundu mailan izandako desfile gehienetan emaztegi tradizionala agertu da. Estilo hau aukeratzen duten emakumeek bolumen handiko gonekin eta gerria markatzen duten gorputzekin jantziko dira 2016an. Soineko horiek luzeak izango di-




San Juan, 1
943 20 33 29

Iradi





Argazkia: Josu Torrealdai

ra eta dandarra (kola) izango dute. Transparentziak edota lora-bordaduak dituen frantses-mahukak ikusiko ditugu, eta baita *strapless* eta bihotz-lineak dituzten eskoteak ere. Estilo horren harira, plumadun maxi-gonak, kapadun tul-gonak, eta eskote handiak edo korse estilokoak nagusituko dira. Kontrako tendentzia ere ikusiko dugu: *crop-top* tendentzian, detaile bordatuak dituen kamiseta edo top-a gona batekin konbinatzen da (luzea edo *midi* izan daiteke).

Gonbidatuen soinekoak

2016. urteari begira gonbidatuendako tendentziak errepasatuko ditugu. Emakumeen soinekoetan, alde batetik, enkajeak ditugu: enkajeak elegantzia-puntu bat ematen du eta azken urteko kolezioetan ia desagertuta bazegoen ere, 2016an pisu handia izango du. Bestalde, bolumendun soineko eta gonak ikusi ahal izango ditugu, printzesa edo *lady* estiloa daukaten horietakoak. Horiez gain, txuri-beltza binomioa daukagu: txuri-beltzak inoiz ez du egun berezietan huts egiten, eta hurrengo hilabeteetan festa eta zeremoniako soinekoetan ikusi ahal izango dugu. Estanpatuak ere



Argazkia: Josu Torrealdai

CASTANO
PELUQUEROS

943 207047
Fermin Calbeton, 1

contacto@castanopeluqueros.es
www.castanopeluqueros.es

M A R S I

Bidebarrieta, 1
639 40 34 57
943 20 16 26

fasprint
Inprimategia - Serigrafia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan eta papertegian orokorrean

fasprintei@yahoo.es - www.imprentafasprint.es
Ego Gain, 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak

Khôl
Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

ROSANA
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

ZURE ONGIZATERAKO ESTILO BERRIA. AUKERATUIGUZU!!

Lakett
ESTETIKA MASAJEA


Emaztegai eta amabitxiendako
NOBEDADEA!!!

Bisturirik gabeko Kirurgia:
GOMMING tratamendua
(MASAJE ANTIGRABITORIOA)

Zezenbide, 4 www.lakett.com 943 53 00 66

AIZKIBEL, 10
- AZKOITIA -
943-853412

Joseba
JATETXEA



josebajatetxea@hotmail.com

2016 ezkontzetan SORPRESATXO bat *Zaloz informatzera!*

AZKOITIKO bihotzean, Joseba Jatetxea zuen esku era guztietako **EZKONTZAK** eskainiz, 55€tik hasita. **ZUEN ZAIN GAUDE!**

EZKONTZA tartak eta despedidetarako (ENKARGUZ)
ANTXON DEGUSTAZIOA
T. ETXEBARRIA, 13
943 20 63 22
943 20 05 47

Loiola, 24 -AZPEITIA-
Tfnoa. 943-815608
www.kiruri.com
info@kiruri.com

Kiruri

- Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...
- Eguneko menua
- Taldeko menuak
- Karta...



Argazkia: Josu Torrealday

nagusituko dira, batez ere loradunak. Gainera, transparentziaz berteriko soineko sugerenteak eta greko estilo grekokoak ere ikusiko ditugu.

Orrazkerari dagokionez, hurrengo denboraldian mototsak nagusituko dira. Praktikoia izateaz gain, eroso, elegantea eta oso erromantikoa da; gainera, beroa egiten duen egunetarako ezinhobeia. Mototsez gain trentzak ere ikusteko aukera izango dugu.

Makillajea

Makillajeak berebiziko garrantzia izaten du ospakizun berezietan. Makillatzeko ohiturarik ez daukaten emakumeak ere animatzen dira egun horietan, eta sarritan profesionalen eskuetan jartzen dira. Hala ere, etxean makillatzea pentsatzen baduzue, hona hemen aholku batzuk: ezkontza egunez ospatzen denean, tono neutroak erabiltzea komeni da, ondo gelditzen baitira edozein koloretako soineko edo jantziakin. Hasteko, azala ondo garbitu eta hidratatu behar da. Ondoren makillaje-oinarri bat erabili behar da. Inperfekzioak (orbanak, granoak, gorritasunak) zuzentzeko iluminatzaile bat erabili. Makillajea jarri, ahal bada argiduna eta arina. Makillajea ondo jartzeko pintzel bat erabili, erditik hasi eta kanporantz zabalduz. Ondoren, hauts konpaktoak erabili, matizatzeko eta brilloak kentzeko. Larrosa koloreko koloretea jarri.

Begientzako marroi koloreko arkatza erabil dazakezue, begiaren kanpoaldetik begi-zuloraino; ondoren, difuminatu. Betazeletan urre koloreko begi-itzalak erabili. Betileen behelalde eta goikal-

TERAPIAS Y ESTÉTICA
ALAI

GORPUTZ TRATAMENDUAK: erreduktoreak, antizelulitikoak
AURPEGI TRATAMENDUAK: lifting efektoa, azido hialuroniko betegarria
Masajeak: lasaigarriak, lunbagoa, fibromialgia
Naturopatia - Iridiologia
Bach loreak - Ajuste neurologikoak

TXANDA HARTZEKO 943 20 85 14
Isabel Gómez
www.esteticaalai.com
facebook: alai terapias esteticas



Argazkia: Josu Torrealday


dea marroi koloreko arkatzarekin delineatu. Begiekin amaitzeko, betileendako maskara jarri. Ezpainetan urrezko erreflejodun *nude* toñoa erabili, eta bolumena lortzeko, *gloss* transparentea. Ospakizuna gauean baldin bada, urre eta marroi koloreko koloreteak gomendatzen dizkizugu. Ezpainetarako larrosa eta gorria.

Kaligrafia eta lettering-a

Idazteko edota letrak, hitzak edo esaldiak marrazteko artea modan jarri da. Azkenaldian bikote askok gonbidapenak pertsonalizatu egiten dituzte, batzutan eskuz egindako karaktere zainduekin, eta beste batzutan akuarelekin egindako marrazkiekin. Oso baliabide delikatua da, baina horrela besteengandik bereiztea lortzen da.

Gozogintza xumea

2015ean "Naked cakes"-ak edo koberturarik gabeko tartak nagusitu dira; eta 2016an ere horrela izango da. Protagonista bakarra betegarria izango da eta alde batera geldituko dira *fondant*, *frosting*, merengea, nata edota txokolatea. Tartak lora freskoeekin, edota basoko fruitu eta adarrekin apainduta ikusiko ditugu. Guzti horrekin ikutu erromantikoa lortuko da. Orokorrean, ezkontzako detaile guztietan erromantizismoa gailenduko da, *vin-tage* estiloa alde batera utzita.



Argazkia: Josu Torrealday

Bidebarrieta, 28 943 20 79 73

San Andres gozotegia

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

www.kantabriaajatetxea.com
kantabria@kantabriaajatetxea.com

Arrate Gaina, 4
 279 Postakutxa
 20600 EIBAR
 Tel. 943 121 262

KANTABRIA
Jatetxea

EZKONTZAK
 BATAIOAK
 JAUNARTZEAK

RESTAURANTE KANTABRIA
 KANTABRIA.JATETXEA

Bidebarrieta, 5 www.capiestetica.es Tel. 943 201 547

C A P I

Aurpegi tratamenduak

- Lifting japonesa
- Radiofrequentzia
- Mantxak
- Mesoterapia birtuala

BETILE LUZAPENAK
 BETILEETARAKO LIFTINGA
 GEL ATZAZKALAK
 IA BETIRAKO MANIKURA

LASER DEPILAZIOA **30€**

Hanka osoak + Izterondoak: 90€ **30€**
 zona bakoitza



Asier Cuevasekin batera, Eibarren atletismoa bultzatzen aitzindaria izan den Marcial del Amok ere jaso zuen errekonozimendua. MAIALEN BELAUSTEGI

300 parte-hartzaile III. Asier Cuevas herri-lasterketan (%62 Eibarkoak)

Aurreko zapatuan jokatu zen III. Asier Cuevas Herri Lasterketak ia 300 korrikalari batu zituen (proban parte hartzeko 290 lagunek eman zuten izena eta herri barruan egin zen 7 kilometro eta erdiko ibilbidea 277-k amaitu zuten). Sailkapen orokorrean, proba amaitzen lehena Ander Sagarzazu donostiarra izan zen (0:22:43) eta eibartarren artean lehena, berriz, Pello Osoro (0:22:59). Emakumezkoen dagokienez, Ainhoa Sanz izan zen lehena (0:26:04) eta, eibartarren artean, Aitziber Urkiola (0:27:39). Bestalde, pro-

ba amaitu zutenen artean gizonetzkoak 212 izan ziren eta emakumezkoak 65; eurretatik 173 Eibarkoak (46 emakumezko eta 127 gizonetzko).

Lasterketa hasi baino lehen, Klub Deportiboko antolatzaileek Asier Cuevas bera eta gure herriko atletismoa bultzatzen aitzindari izan den Marcial del Amo omendu zituzten. Une hunkigarria izan zen bihurtzat. Sailkapen orokorrak zein bestelakoak ikusteko <http://www.sailkapenak.com/evento/iii-asier-cuevas-herri-lasterketa-2015/clasificaciones-helbidean> begiratu dezakezue.

Olmos judokak brontzezko domina lortu zuen Asturiasen

Aurreko asteburuan Pola de Sieron jokaturako Puerta de Asturias nazioarteko judo torneoan, Leon, Kantabria, Palentzia, Burgos, Galizia, Madril, Asturias eta Euskadiko ordezkariak izan ziren lehian eta, 60 kilotik beherako mailan, Kalamuako Josu Olmosek brontzezko domina eskuratu zuen; hala ere, bere ligan lehena geratuta ere ez du lortu finalera pasatzea. Gaur, bestalde, Kalamuako jiu-jitsu talde batek Madril lehian lortu du, Jiu-Jitsu eta Ne Wazako Espainiako Kopan.



Asola-Berriko bolariak Euskadiko txapelaren borrokan

Arkaitz Rodriguez (15 txirlorrek) eta Sergio Rodriguez (14rek) aurkeztuko dira bihar Markinako Barinagako bolatokian jokatu den Euskadiko XXVI. hiru-txirlo bolo txapelketaren azken jardunaldira. Betiko moduan arratsaldeko 17.00etan hasiko den jaurtaldian beste bi aurkari zuzen izango dituzte: San Migueleko Unai Loiola (15 txirlorrek) eta Lasturreko Roman Arrizabalaga (14rek). Beste aurkari batzuen artean, hor izango dira San Migueleko Xabier Loiola (12rek) eta Asola-berriko Bittor Astigarraga eta Juan Luis Rodriguez (11rek), baina azken hauek zailago izango dute jardunaldi bakarrean alde hori errekonozitzea. Beraz, interes handiko azken jardunaldiaren aurrean gaude, eibartarrek txapela janzteko %50eko aukera dutela.

Sailkapen orokorretik aparte, gure herriko bolatokiko ordezkariak lehen postuetan daude hainbat mailatan: horrela, Olaitz Rodriguez lidera da emakumezkoetan (Garmendipeko Yarisa Caballerok baino txirlo bat gehiago botata), Kepa Rodriguez nagusi da alebinetan eta, azkenik, Astigarraga eta J.L. Rodriguez nagusi onenak izateaz gain, bikoteka ere lidergoan daude.



Waterpoloko harrobia indarrez gainezka

Urbat waterpolo taldeko sei gazte (Xabier Egidazu, Jone Gomez, Irati Martin, Elene Molina eta Eneko eta Jon Treviño) sartu dira Gipuzkoako selezioaren azken deialdian eta, ez hori bakarrik, jubenilek 30-2 irabazi baitzuten euren partidua, eta kadeteak (Jol Sologaitzarekin entrenatzaile lanetan) 12-14 nagusitu ziren

Lautadaren igerilekuan. Seniorrak, baina, Euskal Ligako maila berriaren zailtasunaz jabetu ziren beste behin eta 20-9 galdu zuten Iruñean UP-NArekin. Mailari eusteko neurketa garrantzitsua izan daitekeena izango dute hurrengoan: Iruñean ere Waterpolo Navarra aurkari zuzena izango dute aurrean.

Eibar-Rayo domeka eguerdian

Mendilibarren taldea hilabete erabakigarriaren aurrean dago, lau partidutik hiru Ipuruan jokatuko baititu. Hasteko, domeka eguerdian, 12.00etan, Rayo Vallecano talde arrakatsua hartuko du eta hurrengo zapatuan, hilaren 7an, Getafe, 20.30ean hasiko den neurketan (bi partidu horietako puntuak garrantzi handia izan dezakete gero). Hilaren 22an, 16.00etan, partidu zaila izango du te Villarrealen, 29an (San Andres bezperan) Real Madril Ipuruan hartu aurretik, arratsaldeko 16.00etan.

Herriko 79 ikasle Finalistaren Egunean


Urriaren 18an Bergaran egindako XXVIII. Finalistaren Egunean, Eibarko ikastetxeetako 79 neska-mutil mendizale izan ziren parte hartzen. Gipuzkoako Mendizale Federazioak antolatutako urteroko ibilaldian 34 ikastetxeetako 546 ikasle izan ziren guztira, tartean La Salle Isasi, Iturburu, San Andres, Urkizu, Arrateko Andra Mari, Aldatze, Amaña eta Itzioko ikasleak.



Astelenak lau partidu hartuko ditu gaur

Kluben Arteko Torneoaren barruko jardunaldia jokatu da Astelenan gaur 19.15ean hasiko den pilota jaialdian. Hasteko, alebin mailako partiduan, Mikel Kaminak Oñatiko ordezkaria izango du aurrez-aurre, jarraian infantiletan Mikel Azkargortak Arrasateko Garitanori aurre egiteko. Ondoren senior mailako partidu bi jokatu dira: 3. mailako lehia, Narbaiza-Zubizarreta bikoteak Antiguako ordezkariak izango ditu aurkari eta, jarraian, 1. mailako neurketan, Agirresarobe-Lantz Klub Deportiboko bikoteak Tolosako Aurrer-Saiaz taldeko bikotearen aurka jardungo du.

Aurreko asteburuan bi garaipen eta bi porrot izan zituzten Deporreko ordezkariak: Azkargorta infantiletan eta Amuategi-Ibarra benjaminetan irabazi eta Abalosek infantiletan eta 1. mailako seniorrek galdu egin zuten. Pilota batzordeko ordezkariak esan digutenez, pilotan egiteko gogoia duten gaztetxoak Ipurua kiroldegitik pasa daitezke martitzen eta eguenetan, arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara, entrenamenduetan parte hartzeko.



Neurketa gogorak izan zituzten errugbiko taldeek

Senior mailako taldeak maila ona eman zuen Vigon eta ohorezko mailatik jaitsitako galiziarrekin gutxiatik (20-17) galdu zuten. Partidu horretan Alberto Camposek egin zituen fisioterapeuta lanak. Nesken taldeak, bestalde, partidu gogorra jokatu zuen Durango-Uribeko talde indartsuaren aurka, gazte askoren debutaren partiduan. Azkenik, 14 urtetik beherakoen taldeak partidu bikaina jokatu zuen Playaundin Irun R.T. indartsuaren aurka liga hasteko eta, joko bikainarekin, garaipen garrantzitsua lortu zuten.



Waterpoloko harrobia indartsu

Urriaren 17an Gasteizko San Andres kiroldegian jokatuako Euskadiko txapelketan eskuratutakoa jarraipena izan zuen aurreko domekan Cuenca Hiria I. Torneoan eta, hor ere, Ipuruako kadete eta alebin oinarriko taldeek podiumera igotzea lortu zuten. Euskadikoan zilarrezko bana lortu bazuten, oraingoan emaitza hori hobetu eta kadeteek podiumaren gorenera igo zuten. Alaitz Aranguren, Nahia Arguiz, Elena Sudupe, Malen Txurruka eta Ele-ne Varelak osatutako boskotea garaile izan zen bost pelotekin egindako ariketan, Izaro Altuna, Lur Aranburu, Enara Bilbao, Ainhoa Bizkarra, June Heredero, Indira del Pino eta Maddi Teran alebinek bigarren postuan sailkatzen ziren bitartean.

Zaragozan azaroaren 20tik 22ra jokatu den Espainiako txapelketarako eta Euskalgym-erako prestaketarekin jarraitzeko, bestalde, domekan Iruñera joango dira aipatutako bi taldeak. Hortik aparte, beste 50 bat gimnasta dihardute Ipuruarekin entrenatzen denboraldi berrian jokatu dituzten maila guztietako lehaiketarik prestatze bidean. Klubak, gainera, matrikulatzeko aukera eskainiko du du azaro guztian 3tik 5 urtera arteko neska-mutilentzat. Interesatuek gimnasiaipurua@hotmail.com helbidera idatzi dezakete edo Ipurua kiroldegitik pasatu.



Datorren azaroaren 7an, zapatua, Toom-Pak perkusio taldeak "Reciclart 2.0" lana eskainiko du Coliseoan (20.30). Jendea zur eta lur lagatzen duen ikuskizuna da: tuberiak, poltsak, botilak, makilak, autoen gurpilak, gasolina-bidoiak, baloiak... gure inguruan aurki dezakegun edozein objektu aprobetxatzen dute musika eta ikuskizun izugarria sortzeko.

GORKA GONZALEZ (Toom-Pak) "Soberan dagoena berrerabiltzen dugu espektakulua sortzeko"

- **Nola sortu zen taldea eta zein da zuen arrakastaren gakoa?**

Taldea Alcalá de Henares-en (Madril) sei musikaririk sortu genuen 2003. urtean. Perkusio taldea sortu eta zerbait desberdina egin nahi genuen. Imajinazioa erabilita, gure asmoa ondo pasatzea eta gure energia jendeari transmititzea zen. Lokal txiki batean apalki hasi ginen osaba baten pintura-latekin musika egiten, eta gaur egun, nazioarte mailako ibilbidea izan arren, umiltasun osoz jarraitzen dugu gustatzen zaiguna egiten eta jendeari daukagun onena eskaintzen. Sortzaileak sei izan ginen, baina gaur egun 20-25 lagunek osatzen dugu konpainia, eta ikuskizun bakoitzaren tamaina edo formatoria egokitzen gara: ez da berdina antzerki txiki batean edo mundu mailako ikuskizun erraldoi batean jardutea. 2014an "Reciclart 2.0" aurkeztu genuen, Marta Torresen zuzendaritzapean, eta Bogotá-ko "Palacio de Deportes" en edo Madrileko "La Latina" bezalako prestigio handiko lekuetan egon gara. Eibarrera ere gogo eta energia handiarekin joango gara; eibartarrei perkusioaren bitartez gure mezua helaraziko diegu.

- **Musika, ingurugiroari errespetua eta koreografiak uztartzen dituzue...**

Gure lenguaia musika da, eta oso ondo landutako eszenaraztea daukagu. Ikuskizun oso bisualak sortzen ditugu, koreografia eta mugimenduekin. Ikuskizunean dantza urbanoa dago: *Break dance*, *funky* eta *capoeira*. Eta guztiaren oinarrian ingurugiroa dago. Baliabideen ekonomizazioaren aldekoak gara eta ingurugiroari buruzko hausnarketa sortu nahi dugu. Ingurugiroa zaintzen dugu eta horregatik dena berrerabiltzen dugu; Afrikako tribuek bezala, soberan daukaguna aprobetxatzen dugu instrumentoak sortzeko.

- **Umeekin ere lan egiten duzue...**

2006an hasi ginen umeentzako perkusio eta erreziklaje-tailek egiten Madril. "La Ciudad de los Niños" proiektuari ekin genion eta "ReciclART SCHOOL" sortu genuen. Umeentzako ikuskizun bereziak egiten ditugu: umeak umorea eta perkusioaren bitartez sentsibilizatzea da helburua.

66 parte-hartzaile izan zituen pintura lehiaketak. MAIALEN BELAUSTEGI



Kalean margotzen txapeldun

Aurreko domekan egin zen XXXVIII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketako irabazleak hauek dira: helduen mailan, lehen saria Fernando Uretak (Artziniega) irabazi du, bigarrena Txema Gutierrezek (Erandio), hirugarrena Jokin Telleriak (Beasain) eta laugarrena Jose Carlos Diezek (Getxo); 18 urtera artekoen artean, berriz, lehen saria Jone Lopez Zurutuzak eskuratu du eta bigarrena Ane Lopez Zurutuzak; eta umeen mailan (12 urtera arte) Jokin Hazasek eraman du lehena eta Malen Azurmendik bigarrena. Gazte eta umeen mailetan saria irabazi duten guztiak eibartarrak dira. Eibarko Artisten Elkarteak udalaren laguntzarekin antolatutako lehiaketan 66 parte-hartzaile izan dira aurten eta epai-mahaikideek "lana kalitate handia eta gai-aniztasuna" azpimarratu dituzte.



Afari-merienda ederra basatxerriekin

Talde polita elkartu zen martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkar-
teak antolatutako basatxerri produktoen dastaketan. Parte hartzera animatu zirenek afari-merienda bikaina egin zuten, Txerri-
zaleok elkarteko Pedro Dezak ekarritako urdaiazpiko, kabezada,
saltxitxoi kuratuak eta pate bereziekin. Horrekin batera Dezak
euskal mendietan txerriak aske hazten dituzten baserriarrak el-
kartzen dituen proiektuari buruz ere jardun zuen. Azaldu zuenez,
txerriak Euskal Herriko baso eta zelaietan aske hazten dituzte
eta, horrela, haragi eta txerriak kalitate gorenekoak eta elika-
dura segurtasun osokoak izatea lortzen dute.

Nino Bravoren omenezko kontzerturako sarrerak

Azaroaren 20an, Astelena frontoian 22:00etan hasiko den "Nino Bravo oroitzuz" ikuskizunerako sarrerak aldez aurretik erosi nahi duenak horretarako aukera dauka interneten (www.kutxabank.es webgunean) zein Coliseo antzokiko leihatilan (astelehenetan 19:00etatik 20:00etara eta barixakuetan 21:00etatik 22:00etara). Prezioa 10 eurokoa da.

Carlos Sanchez Barbak zuzenduko duen kontzertuan Cielito Musika Bandak joko du, Serafin Zubiri abeslariaren ahotsak lagunduta. Musikariek diotenez, "ikus-kizun paregabea izango da eta Serafin Zubiri, Felipe

Garpe eta Laia Benachesen ahotsekin batera, bandako ki-deok Nino Bravo omenduko dugu, bere abestirik ezagunenak eskainita eta abeslariaren bizitza pertsonalaren zein profesionalaren nondik norakoak jasotzen dituen proiektioaren bitartez. Kontzerturako konponketak egiteko ardura Iñaki Urkizuk izan du".

Kontzertuan denontzat ezagunak diren kantuak entzungo dira, "horietako asko Augusto Algueró edo Juan Carlos Calderón moduko goi



mailako konpositoreek abeslari valentziarrarentzat sortutakoak, hala nola 'America', 'Un beso y una flor' edo 'Noelia'. Emanaldia 'Como todos' kantuari hasi eta 'Libre' ahaztezi-narekin amaituko da".

laburrak

TRIKITILARIEN ERRIFAK

Musika Eskolako trikitilari gazteek Aste Santuan Irlandara joan nahi dute eta, dirua batzeko, errifak saldu eta hilero bertako produktuz betetako otarra zozketatuko dute. Lehen zozketa gaur izango da: 19:30etik 21:00etara Untzaga eta inguruan kalejiran eta errifak saltzen ibiliko dira eta 21:15ean egingo da zozketa. Zenbaki saritua azken kalejiran emango dute aditzera eta, horrez gain, datorren asteko aldizkarian ere kaleratuko dugu.



Riesgo eta Verdi izango dituzu Euskaltelen dendan (Errebal, 5),

azaroaren 5ean 19etan autografoak sinatzen

ZAIN IZANGO GAITUZU!



Babesle teknologikoa:



Indalezio Ojanguren sariak eta "Politiko-Poetiko 5" Portalean ikusgai

Azaroaren 15era arte egongo da Portaleko erakustokian aurreko barixakuz geroztik ikusgai dauden erakusketa biak bisitatzeko aukera: Indalezio Ojanguren XXVIII. Argazki Lehiaketako irabazleek inaugurazio ekitaldian saria jaso zuten arren, euren lanak Portaleko erakusketa aretoan daude, nahi duenak ikusteko moduan. Eta argazki bilduma ikusgarriarekin batera, oso bestelako erakusketa, "Politiko-Poetiko 5" izen-

burukoa ere bisitatu daiteke. Bigarren hau Amaia Molinet eta David Pavok koordinatutako sormen eta erakusketa proiektua da. 2012an abiatu zenetik, proiektuaren inguruko hainbat erakusketa egin dira: Gasteizko Araba Aretoa (2012), Getxoko Torre Aretoa (2013), Durangoko Arte eta Historia Museoa (2014), Arteztu Galerian (2015), Iruñeko Zitelako Arma Aretoa (2015) eta BilbaoArte Fundazioan (2015) eta, horrez gain,



Saritutako ten talde-argazkia. Goian Oskar Gaskonen lana (sari nagusia).

proiektuaren harira aurkezpenak, mahainguruak eta bestelako ekitaldiak ere egin dituzte. Portalean hamaika artistaren la-

nak batu dituzte. Erakusketak martitzenetik domekara egongo dira zabalik, 18:30etatik 20:30era.

Funk Off! jaialdia Koskorren

Zapatu gauerdian hasi eta 04:30ak bitartean "Funk Off! meets CANELARIUM" izenburuko jaialdia hartuko du Koskor tabernak. Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, jaja Funk Off! elkartekoek antolatu dute eta, euren berbetan, "Canela en Surco, Discos Paradiso, Sonido Cafetarium eta Funk Off!-ekoak ibiliko gara musika ipintzen". Kartelik erakargarriena osatzeko ahaleginari jarraituta, oso gonbidatu bereziak egotea lortu dutela diote: Abu Sou (Canela en Surco - Discos Paradiso), Ivy Barkakati (Discos Paradiso), Pol Etxebe (Sonido Cafetarium) eta Gorku (Funk Off!).



Autodefentsaren inguruko hitzaldia

Azaroaren 17rako (martitzenerako) autodefentsaren inguruko hitzaldia egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak, 19:00etatik aurrera, "Beldurrak jai gurekin" izenburuari jarraituta. Saioaren ardatza Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emagin Elkartek gaiari buruz argitara emandako "Beldurrak gurekin jai! Ekin autodefentsa feministari!" liburuaz izango da eta horri buruz berba egiteko Emagin elkarteko kideren bat etorriko dela aurreratuta dute antolatzaileek. Liburuak jasotzen dituen artean, besteak beste, Autodefentsa Feministaren zergatiak, autoestima eta emozioen kudeaketa, beldurrari aurre egiteko dinamikak eta erasoaren aurreko erantzunak daude eta, arlo teorikoaz gain, liburuak praktikotasunera jotzen du eta, horretarako aholku, dinamika eta ariketa ugariarekin hornitu dute.



Bakailao txapelketarako izen-ematea

Udalak, Alkorta Anaiak, Solera Eibarresa-k eta Soc. Coop. Virgen de la Estrella-k (Maimona) lagunduta, XXIII. Bakailao Txapelketa "San Andres Saria" antolatu du. Azaroaren 29an (domekan) Untzagan egingo da txapelketa, 11:00etan hasita (taldeek ordu erdi lehenago han egon beharko dute non jarri behar diren jakiteko) eta txapelketan parte hartzen dutenek 12:30erako bakailaoa prest izan beharko dute, epaimahaikideei aurkezteko. Antolatzaileek ezarritako arauak jarraituta, bakailao guztiak pil-pilean prestatu beharko dira. Udalak olio (oliba-olio extra garbia, 0,7 graduko) eta bakailaoa emango dizkie parte-hartzaileei (azaroaren 27an, 19:30-

ean Untzagako karpan jaso beharko dituzte) eta hortik kanpora, bakailaoa prestatzeko behar diren gainontzeko osagaiak (berakata eta tresna guztiak, lapikoa barne) lehiakideek eraman beharko dituzte. Eibarren dauden elkarte, etxe edo taldeek har dezakete parte lehiaketan, bikoteka. Izena emateko kuota, berriz, 30 eurokoa da eta azaroaren 27an, osagaiak batzerakoan ordaindu beharko da.

Pegoran izena emateko lehen eguna azaroaren 3a (martitzena) da eta izen-emateko epea azaroaren 13an, 14:30ean itxiko dute. Gehien jota 50 bikote onartuko dituzte (izena eman dutenen kopurua hortik gorakoa bada, zozketa egingo du-



te). Irabazleei banatzeko sariak hauek dira: lehenak garaikurra, txapelak, 300 euro eta etxe laguntzaileek emandako produktuak eskuratuko ditu; bigarrenak garaikurra, 200 euro eta etxe laguntzaileek emandako produktuak; eta hirugarrenak 100 euro eta etxe laguntzaileek emandako produktuak.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IMANOL, bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Muxu potolo-potoluak etxekuen partez. Mundiala zara!



Zorionak, GAIZKA, atzo 10 urte bete zenuzaten-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Garazi zure arrebaren partez.



Zorionak, EDER, haraiñegun bi urte egin zenuzaten-eta. Muxu pillua amama-aitxita eta lehengusuen partez.



Zorionak, IGOR, hillaren 27xan bi urte egin zenuzaten-eta. Muxu bat famelixaren eta, batez be, Alain eta Kairen partez.



Zorionak, PAULA, bixar lau urte beteko dozuz-eta. Zure anaixa Mikel eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ASIER!, haraiñegun urtiak egin zenuzaten-eta. Aitxita-amama eta Eibarko famelixaren partez.



Zorionak, EKAIN, gure mutillak zortzi urte egin dittu-eta. Belarrittik tira eta tiraaaa, ondo pasa zeure eguneeee!



Zorionak, ENEKO, urriaren 19xan 12 urte bete zenuzaten-eta. Dozena bat patxo potolo eta jarraitu holan, txapeldun!




Zorionak, MAIALEN Arrillaga, martitzenian 3 urte egin zenuzaten-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MAIA!, haraiñegun 9 urte egin zenuzaten-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez. Maite zaittugu!



Zorionak, ANA, atzo 12 urte bete zenuzaten-eta. Muxu asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IAN, aurreko zapatuan urtetxua bete zenuzaten-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AIMARI! Segi hain alai eta pottolo. Muxu haundi bat izeba, osaba eta, batez be, NAHIAren partez.

hildakoak

- Jose Mari Kortaberria Zubigarai. 94 urte. 2015-X-21.
- Juan Ignacio Rementeria Tolosa. 63 urte. 2015-X-22.
- Juan M^a Gisasola San Miguel. 2015-X-22.
- Carmen Mutiloa Unzueta. 87 urte. 2015-X-23.
- Jose Luis Urbieta Matxiñena. 70 urte. 2015-X-23.

jaiotakoak


- Unai Arteaga Zarraua. 2015-X-20.
- Luken Osoro Blanco. 2015-X-23.
- Ainara Ali Mohamed Abd elnabi. 2015-X-26.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
31n: 19.45, 22.30
1ean: 20.00
2an: 20.30

“Amama”


Zuzendaria: Asier Altuna



(2 ARETOAN)
31n: 17.00, 19.45, 22.30
1ean: 17.00, 20.00
2an: 20.30

“Mi gran noche”

Zuzendaria: Alex de la Iglesia



(ANTZOKIAN)
31n: 17.00 (1 areto),
19.45, 22.30
1ean: 17,00 (1 areto), 20.00
2an: 20.30 (1 areto)

“El último cazador de brujas”

Zuzendaria: Breck Eisner



(ANTZOKIAN)
31n: 17.00
1ean: 17.00

“Hotel Transilvania 2”

Zuzendaria: Genndy Tartakovsky



BARIXAKUA 30

GAZTELEKUA

16.30. Play/Wii. Indianokuan.

BILERA

19.00. Sanandresak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Kultun.

KALEJIRA

19.30. Eibarko Kantuzaleak abesbatza, musika eskolako soinu-joleek lagunduta. Untzagatik abiatuta.

ZAPATUA 31

1965-EAN JAIOTAKOEN JAIA

11.45. Taldea batu eta oroigarriak banatzea. Jarraian talde-argazkia egingo da. Untzagan (harmailetan).

GAZTELEKUA

17.00. Gaba Beltza. Indianokuan.

HALLOWEEN FESTA

17.30. Koko-jantzi lehiaketa 3-12 urte bitartekoentzat (izen-ematea: dendako Liburu sailean).

18.30. Kids&Us Eibarrek prestatutako "storytime" beldurgarria 3-8 urte bitartekoentzat (izen-ematea: direccion. eibar@kidsandus.es). El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

FUNK OFF

23.55. "Funk Off! meets Canelarium" musika jaialdia. Abu Sou (Canela en Surco - Discos Paradiso), Ivy Barkakati (Discos Paradiso), Pol Etxebe (Sonido Cafetarium) eta Gorku (Funk Off!). Koskor tabernan.

DOMEKA 1

GAZTELEKUA

17.00. Beldurrezko pelikularen emanaldia. Indianokuan.

ASTELEHENA 2

IKASTEN

10.00. Teknoforum. Untzagako jubilatutako etxeko liburutegian.

IKASTEN

16.00. Landareen Foroa: landare lasaigarriak. Portalean.

MARTITZENA 3

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Euskaraz", Oier Araolazaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16.00. Punto tailerra.
17.00. Jostintza tailerraren lehen txanda (bigarren txanda 18:30etatik aurrera). Portalean.

KOKTEL IKASTAROA

17.15. Ostalariak Berbetan-eko kideentzat. Kontent tabernako jangelan.

HARIXA EMOTEN

19.00. Irakurketa taldearen saioa. Garazi Kamioren "Orube abandonatuak" liburua. Portalean.



EGUAZTENA 4

IKASTEN

09.10. Donostiako Itzuliaren lehen zatia (Udaletxetik-Añorga txikira). Bazkaria eraman. Donostiarako trenaren irteera ordua, Ardantzan (Estaziñoan 09:14ean).

IKASTEN

10.30. Antzerkia. Portalean.

MUNDUKO PAISAIK

18.00. Solasaldia: "Literatura del mestizaje femenino europeo", Josune Muñozen (Skolastika) eskutik. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 5

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Napoleon (I)", Urko Barros Historian lizentziadunaren eskutik. Armeria Eskolan.



KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

erakusketak

✓ Urriaren 31ra arte

IÑAKI CAMPOSEN argazki erakusketa. Ez Dok tabernan.
"RALLY DEPOR 2015" argazki erakusketa. Portalea jatetxean.

JUAN ANTONIO PALACIOSEN argazki erakusketa. El Ambigu tabernan.

"FRANK SINATRAREN MENDEURRENA (1915-2015)" pintura erakusketa. Untzagako Zentro Sozialean.

✓ Azaroaren 15era arte

INDALEZIO OJANGUREN XXVIII. argazki lehiaketan saritutako lanen eta beste hainbaten erakusketa. Portalean.

"POLITIKO-POETICO 5" proiektuaren erakusketa. Portalean.

ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN II. ARTELAN ERAKUSKETA. Portalean.

✓ Azaroaren 1etik 30era

IÑAKI CAMPOSEN argazki erakusketa. Portalea tabernan.
"CLUB FOTOGRAFICO 76" argazki erakusketa. Klub Deportiboan.

OSKAR BAGLIETTOREN "Instantes en la montaña" argazki erakusketa. El Ambigu tabernan.

MUNDUKO PAISAIK - LIBURUTEGIAK TOPALEKU "Kulturantzatasuna". Gida bibliografikoa eta interesgunea. Juan San Martin liburutegian.

lehiaketak

✓ San Andres Bertso-paper lehiaketa

Informazioa eta lanak aurkeztea: **Azaroaren 2ra arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 - solairuarterean).

✓ Eibar Beldur Barik 2015

Izen-ematea: Interneten, beldurbarik.org helbidean. **Azaroaren 11ra arte**. Informazio gehiago: Berdintasun Arloa (Portalea, 4. pisua; 943708440; berdintasuna@eibar.eus) eta Andretxea (Zezendibe, 9 behe; 943700828; andretxea@gmail.com).

diru-laguntzak / bekak

✓ Ekintzaileentzat

Eskaerak: **Azaroaren 9ra arte**, Debegesa (Vanessa Hortas, ekintzaile@debegesa.eus / 943820110).

ikastaroak

✓ Jabetze Eskolako ikastaroak

Noiz eta non: Iraila eta abendua bitartean, Andretxean eta Portalean. **Eskaerak:** "Transfeminismoa" (gaztelaraz, 8 ordu, azaroaren 6ra arte).

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63



Kultuko bazkideen lanak Topalekuan

Gaur arratsaldean zabalduko dute Topalekuan azaroaren 15era arte ikusgai egongo den erakusketa berria: "Arrate Kultur Elkarte bazkideen II. artelan erakusketa". Elkarte bazkideek ikusgai ipinitakoen artean, eskulturak, argazkiak eta margolanak daude, besteak beste. Erakusketa Topalekuko ohiko ordutegian bisitatzeko aukera izango da: astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta asteburu eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Edizio honetan parte hartzerantz animatu diren artistak Natalia Garrido, Arrate Osoro, Carmen Mostaza, Maite Arriaga, Esther Galarza, Jesus Belaustegi, Jose Luis Irigoien, Esther Fernandez de Maruri, Eli Eguren, M^a Carmen Piriz, Esteban Oroz eta Espe Zabala dira.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

S U D O K U A

7								
		9	7		8			
	8			6			5	1
2						8	4	9
		6				1		
1	4	3						7
3	2			8			1	
			1		7	2		
								5

1	3	2	9	8	5	4	7	6
5	4	7	2	6	3	9	1	8
8	9	6	4	7	1	5	2	3
3	7	1	8	5	4	2	6	9
4	6	9	3	2	7	1	8	5
2	5	8	6	1	9	7	3	4
7	8	5	1	4	6	3	9	2
9	2	4	7	3	8	6	5	1
6	1	3	5	9	2	8	4	7

AURREKOEN EMATZA

farmaziak

- ✓ **barixakua 30**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **zapateria 31**
EGUNEZ **Golkotxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **domeka 1**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **astelehena 2**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **martitzena 3**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **eguztena 4**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguztena 5**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **barixakua 6**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ BETI
Elorza (J. Gisasola, 18)

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukalde, bi koma eta ganbara. Tel. 615-759399.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 697-754174.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. Hobe altzaririk gabe. Tel. 649-978832.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-032117.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Jostun-tailerra traspasatzen da jubilazio-gatik. Tresna, bezero eta denda finkoekin. Tel. 645-341395.
 – Garaje itxia salgai San Pion. Sarrera ona. Tel. 652-775746.
 – Garaje bikoitza salgai Bittor Sarasketa kalean. Tel. 617-336462.
 – Taberna traspasatzen da Eibar erdialdean. Martxan, bezero finkoekin. Tel. 695-711730.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Matsaria inguruan (Azpiri eraikinean). Tel. 696-626593.
 – Gazteentzako lokala alokagai Jardirieta kalean. 132 m². Berritua eta legezztatua. Tel. 656-756485.
 – Garaje itxia alokagai Abontzan. Tel. 617-688311.
 – Lokala alokagai Ubitxa inguruan, kale mailan (itearra zuzena kalera). Bulego edo biltegi-irako egokia. 70 m². Tel. 617-688311.
 – Garaje-marra alokatzen dut Txomoko parking-ean. 90 euro hilean. isabel.berasategui.flegel@gmail.com
 – Garaje itxia alokagai San Andres pasealekuan. Tel. 660-316903.
 – Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, etabar. Tel. 663-639241.
 – Neska euskalduna (Haur Hezkuntza diplomatu) eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-715066.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Baita gauzez ere. Tel. 688-959575.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 690-134485.
 – Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 640-315602.
 – Gizona eskaintzen da arratsaldez banaketak egiteko. Gida-baimenarekin. Tel. 693-232959.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Erreferentziarik. Tel. 680-973549.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
 Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
 Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 606-906729.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 631-832767.
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 622-225561.
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 646-778839.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduetegi zabala. Tel. 634-748531.
 – Mutila eskaintzen da baserriko lanak egiteko, lorezain jarduteko, elektrizista moduan eta zamalanak egiteko. Tel. 631-265121.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-051309.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-384325.
 – Neska eskaintzen da soziedadek, pegorak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere). Esperientzia eta erreferentziarik. Tel. 618-828506.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 672-442318.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako (tabernak, ...). Tel. 631-157623.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Interna. Tel. 658-458271.
 – Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria ezagupena eta gida-baimenarekin. Tel. 626-168258.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-771519.
 – Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Informeak eta esperientzia. Tel. 679-910991.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak arratsalde zaintzeko. Tel. 628-738472.
 – Neska eskaintzen da nagusiak (baita gauzez ere) edo umeak zaintzeko. Tel. 631-417995.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-820508.
 – Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko (baita gauzez ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziarik. Tel. 652-587259.

– Txalapataria eskaintzen da ezkontza, omenaldi, azoka etabarretan jotzeko. Tel. 688-611021 eta 943-833939.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 661-082294.
 – Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko (baita gauzez ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziarik. Tel. 631-966192.
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 653-075865.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Erreferentziarik. Tel. 636-815924.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-817384.
 – Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita umeei eskolako lanekin laguntzeko ere. Tel. 622-225561.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-910991.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 685-768026.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... Tel. 629-869572.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 672-337819.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-276360.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-564674.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein ordutan. Erreferentziarik. Tel. 631-975260.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-908730.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-231059.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 606-906729.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-084256.

– Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 628-747805.
 – Gizonezkoa eskaintzen da gizon nagusiak zaintzeko. Baita etxeak, ganbarak etabar garbitzeko. Tel. 628-747805.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-076486.

4.2. Langile bila

– Pertsona behar da goizetan umea Sansa-burura eramateko. Tel. 943-203205.
 – Kamarera behar da egunetik domekara arte Soraluzeko Ufala Irish Pub tabernan lan egiteko. Tel. 615-750942.
 – Pertsona behar da Ermuan 8 orduko garbiketa lanak egiteko. Tel. 685-701034.
 – Artezte makinetan edo CNC zentroetan esperientzia duten ofizialak behar ditugu. Bidali curriculum Eibarko 177 posta-kutxatilara.
 – Fisioterapeuta eta kiromasajista behar da Eibarko ileapaindegia batean. Lan giro ona. Tel. 678-674250.
 – Neska behar da Zuzenbide ezaupideekin noizbehinkako lana egiteko. Deitu goizez. Tel. 943-120949.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Neska eskaintzen da klase partikularrik emateko LH eta DBHko 1. eta 2. mailako. Esperientzia. Tel. 637-020260.
 – Unibertsitateko neska eskaintzen da klase partikularrik emateko. Esperientzia ulermen arazoak dituzten umeekin. Banaka. Merke. Tel. 625-019711.
 – Matematikak, Fisika, Kimika, Lengoaia, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen ditut. DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
 – DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarrek klaseak ematen ditut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Albetor.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bi oheko ohe-kabi zuria salgai (0'90x2). Somierrekin, baina koltxoirik gabe. 150 euro, negoziagarriak. Tel. 660-805301.
 – 0'90eko sukalde salgai, gas-bonbonak eramateko eta labearrekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Egoera onean dauden 16 buzoiz oparitzen dira. Tel. 617-688311.
 – Umeendako aukla salgai. Beltza, McLaren Techno-XT markakoa. Bere neurrirako plastikokoarekin. 180 euro. Tel. 646-892162.
 – Ontzi-garbigailua salgai. Balay markakoa. 100 euro. Tel. 636-906921.
 – Bigarren eskuko umeendako Bugaboo-a salgai. 150 euro. Tel. 649-978832.

6.2. Eman

– Ordenagailurako aukla oparituko nuke. Bizkarralde handia eta gurpilekin. Tel. 636-906921.

Hyundai Tucson Berria

Aldatzea jarrera bat da.



#changeisgood

Aldaketa gure bizitzan zatia da. Sentsazio berriak aurkitzea eta une hunkigarriak bizitzea ahalbidetzen digu. Irudimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinu eta berrikuntza teknologikoek gidaritza gozatzeko zure era guztiz aldatzea ekarriko dute.

Esperimentatu aldaketaren indarra
www.hyundai.es helbidean

Tucson Berria **18.900€** tik aurrera



OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama

CO₂ Emisioak (gr/km): 119-175

Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,6-7,5

Tucson 1.6 GDI (131CV) 4x2 BD ESSENCE-rako gomendatutako prezioa, Penintsulan eta Balearretan (18.900€). BEZ, garrailoa, matrikulazio-zerge, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza, Hyundai Solución Plana eta Gobernuaren PIVE Plana barne (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeari lotuta). Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 13.000€ko gutxienezko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatzeko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziazioa. 2015/10/31ra arte balioko du eskaintza honek. Erakutsitako modelo: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziatori lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduen baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo hyundai.es helbidean.

Zure enpresa erakusteko leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2016

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da.



publizitatea@etakitto.eus


943 20 67 76

www.etakitto.eus





MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA

*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
OSPAZTEKO toki bikaina*



*250 LAGUNENDA
KOKO JANGELA*



Ozaeta Jauregia -BERGARA-
Tel. 943 76 10 55 Fax: 943 76 20 29



www.restaurantelasa.es